

## EUSKO JAURLARITZA

### LAN ETA ENPLEGU SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako  
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebazten da 2015-2018 urteetarako Gipuzkoako Transitarioen Lan Hitzarmenaren aurreraegina luzatzeko Akordioa erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (200014-95011990 kodea).*

#### AURREKARIA

*Bakarra.* 2022ko azaroaren 24an aurkeztu da 2015-2018 urteetarako Gipuzkoako Transitarioen Hitzarmen Kolektiboaren aurreraegina luzatzeko akordioa, aipatu hitzarmena 2017ko urriaren 9ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua da. Akordioa ATEIA Gipuzkoa-OLT (Asociación de Transitarios, Organización para la Logística y el Transporte) elkarteak enpresaburuen izenean, eta ELA, LAB eta UGT sindikatuek, langileen izenean, sinatu dute.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako akordioak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2022ko azaroaren 28a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (7441)

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Trabajo y  
Seguridad Social de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Acuerdo de prórroga de la ultraactividad del Convenio Colectivo de Transitarios de Gipuzkoa para los años 2015 a 2018 (código 200014-95011990).*

#### ANTECEDENTE

*Único.* El día 24 de noviembre de 2022 se ha presentado el acuerdo de prórroga de la ultraactividad del Convenio Colectivo de Transitarios de Gipuzkoa para los años 2015 a 2018, publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 9 de octubre de 2017. El Acuerdo ha sido suscrito por ATEIA Gipuzkoa-OLT (Asociación de Transitarios, Organización para la Logística y el Transporte) en representación de los empresarios, y los sindicatos ELA, LAB y UGT, en representación de las personas trabajadoras.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El acuerdo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

#### RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 28 de noviembre de 2022.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (7441)

*2015-2018ko Gipuzkoako Transitarioen Hitzarmen Kolektiboaren aurreraeragina luzatzeko Akordioa.*

*Lehenengoa.* Gipuzkoako Transitarioen sektoreko 2015-2018 urteetarako hitzarmen kolektiboak (kodea: 2000149501-1990), 2017ko urriaren 9ko 193. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoak, 4. artikuluko azken paragrafoan ezartzen zuen: «Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, salaketa jarri eta hitzartutako iraupena amaitu ondoren, 4 urteko indarraldia izango duela, hau da, 2022-12-31ra arte.»

Hitzarmen hau negoziatzeko legitimazioa duten akordio honen sinatzaileek erabaki dute hitzarmenaren idazketa aldatzea modu honetan: «Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, salaketa jarri eta hitzartutako iraupena amaitu ondoren 4 urte eta 4 hilabete-ko indarraldia izango duela, hau da, 2023-04-30era arte. Nolanahi ere, epe hori luzatu ahal izango da, bi alderdiek hala nahi badute.»

*Bigarrena.* Era berean, Nieves Martinez Gayosori, Gipuzkoan Preco kudeatzeko arduradunari, baimena ematea lan-agintaritzan erabaki hori inskribatzeko eta erregistratzeko behar diren izapideak egiteko.

*Acuerdo de prórroga de la ultraactividad del Convenio Colectivo de Transitarios de Gipuzkoa 2015-2018.*

*Primero.* El convenio colectivo del sector de Transitarios de Gipuzkoa para los años 2015-2018 (código 20001495011990) publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 193 de 9 de octubre de 2017 establecía en su artículo 4.º último párrafo que «Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en art. 86.3 ET, que una vez denunciado y concluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia por un periodo de 4 años, es decir, hasta el 31-12-2022.»

Los firmantes de este acuerdo, legitimados para la negociación de este convenio, acuerdan modificar la redacción del mismo, en el sentido de manifestar que «Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en art. 86.3 ET, que una vez denunciado y concluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia por un periodo de 4 años y 4 meses, es decir, hasta el 30-04-2023, sin perjuicio de que dicho plazo pueda ser ampliado por voluntad de ambas partes.»

*Segundo.* Asimismo acuerdan autorizar a Nieves Martinez Gayoso, responsable para la gestión del Preco en Gipuzkoa, la realización de los trámites necesarios para la inscripción y registro de dicho acuerdo ante la autoridad laboral.